

ZEZENA ETA SUBEA.

Zezen bat mendiyetan
 zan beti ibiltzen,
 arrapatzen zituben
 pisti denak iltzen,
 segitzen baitzubela
 lan artan charkeriz,
 beretzat ezer prochu
 gabe gaiztakeriz;
 bada ala beldurrak
 zeukaizkila artzak,
 otsoak, azeriyak
 nola katamotzak,
 subeak esan zuben
 ark zubela ilko,
 etzala luzaro an
 ala ibilliko;
 eta joanta loturik

gogor adarrean,
 ozkaz pozoya sartu
 zion sudurrean,
 eta ibiltzen zana
 pisti aundik iltzen,
 ikusi zan chikiya-
 gandikan umiltzen.

.
 Asko lezakela ta
 ainbestez iñori,
 gaitzik egiten ezta
 bear al bait ari;
 ez sobra pantesiya
 iruki indarrez,
 zeren guchi dubenak
 gal lezaken errez.

RAMON ARTOLA.